


**Familientzako barnetegiak**
**Barnetegis para familias**

Urteak daramatza AEK-k familientzako barnetegiak antolatzen. Oso barnetegi bereziak dira: gurasoak euskara ikasten dauden bitartean, begirale-hezitzaile prestuek seme-alabak zaintzen dituzte; eta arratsaldean, denak batera, ikasitakoa praktikan jartzen dute.

Euskara ikasteko eta guraso eta seme-alaben artean euskaraz aritzeko ohitura sendotzeko balio du, eta gainera, aparteko oporraldia dira haur eta gurasoentzat.

Barnetegi hauek nolakoak diren azaltzeko modurik onena bertan aritu diren gurasoen esperientzia azaltzea denez, **bideo laburra** prestatu dugu. Horrez gain, AIZU! aldizkariak publikatu duen **guraso batzuen gutuna**, eta familia barnetegian ibilitako **aita-semeen testigantza** partekatu nahi ditugu zuekin.

*AEK lleva años organizando los barnetegis para familias. Se trata de unos barnetegis muy especiales: por la mañana, mientras los padres y madres estan en clase, sus hijos/as disfrutan con educadores de actividades diseñadas específicamente para ellos; y por la tarde, todos juntos, ponen en práctica lo aprendido.*

*Estos barnetegis, además de fomentar la comunicación en euskara dentro de la familia, son una manera diferente y bonita de pasar las vacaciones en familia.*

*Hemos hecho este pequeño **video**, porque la mejor manera de explicar cómo son los barnetegis para familias es mostrar la experiencia de los padres y madres que han estado en ellos. Además, queremos compartir con vosotros una **carta escrita** por madres y padres que estuvieron el año pasado, y el t**estimonio** de un padre e hijo que participaron en el barnetegi familiar publicados en la revista AIZU!*



# Euskararen gustu guztiak AEKren uda barnetegietan

Marketin hutsa badirudi ere, ondorengo gutun hau jaso zuen pasa den irailean AEKren uda barnetegien arduradunak. Gutuna benetakoa da eta bere horretan argitaratu nahi izan dugu, akats eta guzti. Izan ere, iazko udan familia barnetegia egin zuten ikasle jator hauek dioten moduan, irakasle onak izan zituzten, baina inor ez da perfektua.

AEK-k berak baino hobeto azaltzen dute zer den familia barnetegia: bultzada sendoa, behin betikoa, gurasoei seme-alabekin euskaraz bizitzen laguntzeko. 2014ko udarako ere antolatu ditu AEK-k familia barnetegiak, beste mota guztietakoekin batera.

Informazio gehiago zuen AEK euskaltegian, 673 200 100 eta 946 464 000 telefono-zenbakietan edota *www.aek.org* webgunean.

2013ko abuztuan 20an

Kaixo:

Gutun honen bidez zorionak eman nahi dizuegu Adunan barnetegi familiarra antolatzeagatik.

Hasieratik bukaerara dena oso ondo prestatu duzue. Xehetasun osoak zaindu duzue.

Proposamen bat, soilik, izena aldatu behar duzue. Proposamenak:

**Opor barnetegi,** "todo incluido" batean. Dena pres eduki dugu ondo pasatzeko: umeak "mini-clubean", jatetxe oso ona "a mesa puesta", hamabi egunetan hiru txangoak Euskal Herria ezagutzeko "etorri eta esan", igerilekuan, hondartzan, museoak, tallerrak… etabar.

Bidai agentzietan merkaturatu ahal duzue.

**Barreterapia barnetegi,** urtean jendea bizitza oso serio pasatzen dugu, hamabi egun honetan kristoren barreak egin ditugu.

**Ikaskuntza barnetegi,** bi irakasle hamar pertsonarentzat, 24 ordu hamabi egunetan, ¡Hau ez dauka presiorik! Hau posiblea da, soilik, militantziagatik, eta Iosuk eta Begok lortu dute trasmititzea.

Urtean ikasi duguna "en valor" ipini dugu. Bakoitzari bere akatzak azaldu dizkiote. Alde batetik gure lekuan ipini genituen eta bestetik animo bultzada handia eman digute.

**Harreman bernetegi,** familien artean eta familien barruan. Posible da ohiturak aldatzea, poliki-poliki, baina aurrera. Bultzakada handia eman digute.

Hau gustia, eta gehiago, Begori eta Iosuri esker egin ahal izan da, Haizearen eta Lauraren ordainezin laguntzarekin.

Dena erresa egin digute. 24 ordu denetaren ardura izan dira, adibidez, lehenengo egunean neska batek aitari esan zion aspertuta zegoela, Bego entzun zien eta bera hartu zuen, ezer ez esan gabe, hamabi urterekin oso ondo pasatu du.

Haizeak eta Laurak lagundu digute umeak ondo pasatzeko. Umeak ondo pasatzen badute besteak ondo egongo gara. Horrexegatik bere laguntza hain importantea da.

AEK-koek irakaslei primeran entrenatzen dituzte, Atletikoei gustatuko litzaiokete…

Eskerrik asko Iosuri eta Begori, benetan, primeran zuekin pasatu dugu.

Haizearen eta Lauraren empresari gure zorionak bidaliko diozue, guren aldetik.

Sinadura: 2013ko Adunan familia barnetegiko familia gustiak.

Oharra: espero dugu ulertzea, Iosu eta Bego oso irakasle onak dira baina ez dira Jaingoikoa.

**1. Urteon:** *aurten, urte honetan.* **2. Aitzin:** *aurrera.* **3. Bidenabar:** *bide batez.*

## Jaume eta Julen

Familia barnetegian ibilitako aita-semeak



**Jaume, zergatik eman zenuen izena familia barnetegian?**

Semeari erakutsi nahi niolako Euskal Herrian badagoela mundutxo bat euskaraz normaltasun osoz bizi dena. Tamalez, *Napartheid* honetan, hori ikustea ez da hain ohikoa. Halaber, aukera paregabea zelako biok batera euskara ikasteko.

**Zer moduzko esperientzia izan zen?**

Primerakoa. Erabat gomendagarria. Horregatik egin ditugu hiru familia barnetegi. Hurrengoan, beste semearekin eginen dut, berari ere euskal mundura ireki nahi baitizkiot begiak.

**Julen, zer moduz pasa zenuen familia barnetegian?**

Oso ongi pasa nuen.

**Zer egiten zenuten?**

Elizondora joan, gauez mendi batera joan ginen izar **iheskorrak**[4] ikustera... Urezko globoen gerra ere egin genuen!

**Zer izan zenuen gustukoen?**

Lagunak egin nituela.

**Informazio gehiago (datak, prezioak, lekuak), HEMEN**

**Matrikulazioa:**

**673 200 100 / 946 464 000**

**udabarnetegiak@aek.org**




**Más información (fechas, precios, lugares), AQUI**

**Matriculación:**

**673 200 100 / 946 464 000**

**udabarnetegiak@aek.org**